


7.


Biltzar Nagusia

EUSKAL HERRIA GORRIRA
Aldaketa borroka
borroka eragin

Kudeaketa txostena



Kudeaketa txostena



22 y 23 de mayo de 2008. Barakaldo



Aurkibidea

1. BILTZAR NAGUSIEN ARTEKO ALDIAREN GAKO NAGUSIAK	5
1.1 Nazioarteko egoera	
1.2 Euskal Herria eta Estatuetikiko norgehiagoka	
1.3 Ekonomia eta gizarte eredu	
2. ESKU HARTZEAREN BALANTZEA.....	10
2.1 Nazioarteko estrategia	
2.2 LAB eta aldaketa prozesua Euskal Herrian	
2.3 Ekonomia eta gizarte ereduarekiko kontraboterea	
2.4 Ekintza sindikala eta negoziazio kolektiboa	
3. PROIEKTUAREN HEDAPENA ETA ANTOLAKUNTZA GARAPENA	14
3.1 Proiektuaren hedapena	
3.1.1 Nazio mailako sindikatua	
3.1.2 Afiliazioa	
3.1.3 Sindikatuko ordezkaritza	
3.2 Antolakuntza garapena	
3.3 Egitasmo estrategikoak	
4. BALORAZIO OROKORRA	20



**Kudeaketa
txostena**

22 y 23 de mayo de 2008. Barakaldo

Hitzaurrea

Kudeaketa txosten honetan Nazio Komiteak, 6. Biltzar Nagusia egin zenetik, aintzat hartu beharreko erreferentzia nabarmenenak aurkezten ditu. Honekin batera, sindikatuak aldi horretan eta egoera politiko, ekonomiko eta sindikalean egin lana eta esku hartzearen balorazioa egiten du. Honez gain, LABen bilakaera zehazten dituzten aldagarri jakinen balantzea aurkezten dugu: afiliazioa, ordezkaritza, antolakuntza.

Kudeaketa txostena sintetikoa da eta ideiak eta balorazioak oso trinkoak dira. Hots, honekin ez dugu sakondu nahi biltzar nagusien arteko aldi honetaz, ez eta aldi horretan sindikatuen jardura edota erabaki guztiak kontatu nahi ere. Gure xedea LABen partehartzea gertatzen den egoerari buruzko argazki zabala egitea da, eta jakina, sindikatu gisa dugun proiektuaren lan eta bilakaera orokorraren erradiografia egin.

Hortaz, balantze-balorazio honetan LABen lau urteko ibilbidea islatzen du, 7. Biltzar Nagusi honek eztabaidara eta zehaztapenera aurkeztu dituen txostenen sarrera gisa.

1. Biltzar Nagusien arteko aldiaren gako nagusiak

1.1. Nazioarteko egoera

Mundu mailan neoliberalismoak izan duen bilakaerak, Bush Administrazioaren estrategia ekonomikoa eta militarren aitzindaritzapean, baldintzatu du biltzar nagusien arteko aldi hau eta harreman ekonomikoetan eta munduko langileei gizarte-mailako ondorioak ekarri dizkie.

Gatazka militarrei (Afganistan, Irak, Kolonbia, Israel-Palestina,...) eragiten die: nazioarteko kapitalak lehen gaiak bermatzeko duen beharrak, beren hedatze politikak eta era berean, beste herrien ekonomia-politika bilakaera eta eragina baldintzatzeko beharrak.

Multinazionalak merkatu berriak behar dituzte beren produktuak merkaturatzeko. Hala ere, lehen gaiak kontrolatzearen bitartez eta lanaren kostu sozialak murriztuz, errentagarritasun maila handiagok bilatzen dituzte. Deslokizazioak, langileen trafikoak, haurren lanak, ekoizpen edota erauzte zereginetan morrontzako era berriak eta oro har, gizarte eta laneko eskubideen urraketa erreferentziak dira kapital multinazionalaren estrategian.

Teknologia asko garatu den mundu batean, aberastasuna berdintasun handiagoz banatzeko gaitasuna duen mundu honetan, kapital multinazionalaren eraginpean merkatuak azaltzen duen jarrera suntsitzaila, globalizazio neoliberalaz ezagutzen duen aldi honetan, txirotasun, miseria, gosete mailak... eta milioika lagunei dagozkien oinarritzko eskubide aunitz honda daitezen eragiten ari da. Ekonomia desorekak, hortaz, areagotzen ari dira herrien artean eta herri bakoitzean, politika ekonomiko hauen eraginpean. Afrikako egoera, konpainia multinazional handientzat lehen gaien espekulazio eta esplotazio gune bihurtuz, pirateria kapitalistaren islarik izugarriena da.

Kudeaketa txostena

22 y 23 de mayo de 2008. Barakaldo

Bilakaera orokor honetan, nabarmendu behar ditugu joera neoliberal hauen ondorioak Europako estatuetan. Hauetan, babes sozialak eta/edo Ongizate Estatuak indargabetzen zituen merkatuaren logikak ondorio jakin batzuk dituzte. Lau urtean egin diren erreforma ekonomikoen eta sozialen bereizgarri dira zerbitzu publikoen, sanitatearen,... etengabeko pribatizazioa eta babes soziala makaltzea. Helburua sektore publikoaren munta murriztea da, eta era berean, langileak bultzatu gizarte babesa inbertsio pribatuetan bilatzera.

Globalizazio neoliberalaren arazo endogenoekin topatzen ari da, eta Txina eta India bezalako herrien eragina jasaten ari da. Herri hauek, teknologia eskuragarria dutelako eta hauen kontsumo maila handia delako giltzarriak dira edota munduko ekonomia sistema osoko bilakaeraren giltzarri bilakatzen ari dira. AEBren eta beste herrien abiadura moteltzea edo atzeraldia bi eragileei lotua dago. Espainiako estatuari dagokionez, krisialdi hau areagotzen da eraikuntza sektorean dagoeneko gertatzen ari den "crak"-aren ondorioz.

Egoera honetan garrantzia handia hartu dute gizarte-borrokak eta Latino Amerikan jazotzen ari diren lerradura politikoak (herri alternatiben bitartez). Hauek herri askotan aukera aurrerakoiak zabaldu dituzte: Venezuela, Bolivia, Ekuador, Nikaragua, Brasil, Uruguay edota Paraguay. Pribatizazioen aurkako burujabetza ekonomiko eta politikoaren borroka ezkerreko sindikalgiak eta politikagintzaren erreferentzia bilakatu da (indar harremanak aldatu dituztenak edota boterea eskuratu dituztenak).

Ildo honetan, azken lau urtean, herriek beren burujabetza lortzarren darabilten borrokek gatazka askotan nazioarteko agenda ezartzen diraute. Estatu berrien eraketak Europako mapa aldatzen dirau. Duela urte batzuk sinestezina zen Eslovenia, Euskal Herriko antzeko biztanleekin baina ekonomia apalago batez, Europako Batasuneko Kontseiluko aldi bateko egoitza izan zitekeela. Antzeko norabidean dira Eskoziako prozesua, Irlandako batasuna, Belgikan, Flandria eta Valonia, edota Euskal Herrian gure errealitate bera ere. Herrien nazio eskubideen aldeko borroka, burujabetza eskubidearen aldeko borroka, demokrazia politikaren aldeko borroka da.

Sindikalgiak dagokionez, berrikuntzarik garrantzitsuenak CIOSL eta CMT-ren arteko bat egitea izan da (CSLa sortuz), eta batik bat, FSM-ren indarberritzea 2005eko abenduan, Kuban egin 15. Biltzar Nagusian. Biltzar Nagusi hau nazioarteko sindikalgiaren inflexio-puntuan kokatu da, zeina SESB erori ostean, nortasun eta partehartze krisialdi garrantzitsuan murgildu zen. Nazioarteko sindikalgiak egiten zaion aipamen honetan, era berean, CES-aren (Europako Sindikatuen Konfederazioa) aitzindaritzak eskasak baloratu, ekimenik eta proposamenik gabe, Europa eraikitzearen eredu ekonomiko, sozial eta politikoari eragiteko.

1.2. Euskal Herria eta Estatuarekiko norgehiagoka

PSOE agintean egon den azken lau urtean, Euskal Herria eta Espainiako Estatuaren arteko norgehiagokak Aznarren aitzindaritzan PP-k aurreko agintaldian egituratu zuen ildoan iraun du. Oinarrizko gaia trantsizio garaiko lurralde ereduaren krisialdia kudeatzea izan da, batik bat Euskal Herrikoa, zeinak eskatzen duen bere nazio-onarpenean oinarritu statusa.

Konstituzio-estatutu esparrua agortu izanari, Lizarra-Garazin politikoki eta sozialki adierazia, bi aldi politikoen arteko trantsizio aldia jarraitzen zaio. Horretan, PP-k, bere "patriotismo konstitucionalistarekin", nahiz PSOEk, bere "konstituzio, konstituzioarekin", bat egin dute neurri judizialetan, hedabideetan, ideologian, ekonomian,... trantsizioaren aldi hau baldintzatzeko, eta honen ondorioz, aldaketa politiko saihestezin baten ezaugarriak baldintzatzeko... Estilo ezberdinekin, PP eta PSOE txandakatzen ari dira Espainiako esparruaren eta Espainiako subjektuaren defentsan, berau burujabetza politikoaren esparru bakarra izanik, aldi berria zabalduko duten erreformei ekiteko baldintzak bilatu nahian (cipa-

yismo abertzalea eraberrituz). Itun Antiterrorista, bere ondorio guztiekin (alderdien legea, Parot doktrina...), Espainiako nazionalismoak darabilen estrategiaren baliabide eta ikur bilakatu dira blokeo politikoari eusteko.

PSOE gobernura iritsi izanak eta PP-k estatuaren hainbat esparruetatik egituratu zuen baldintzatze estrategiek ez dute ekarri iragaite horren ezaugarrietan funtsezko aldaketarik azken lau urtean. Zapaterok sortu itxaropena ez da gauzatu Estatu politikan eta bere alderdiaren estrategiak eta epe motzeko geometria-politikek eragin diote.

Biltzar nagusien arteko aldi honetan gertatu den negoziazio politikaren prozesua, ildo honetan, alperrik galdutako aukera handia izan da bake eszenategiari eta irtenbide politikoei oinarri sendoak jartzeko. Edozein mota eta izaerako baldintzatzaileez gain, PSOEk ez zuen ez kanpo ez barne mailan indar korrelaziorik Loiolan gatazka konpontzeko agertu diseinua bereganatzeko. Gainera, jarrera horrek gehiegi ahul lezake PNV-Imaz, non "Lizarraren" Aldeko jarrera baztertuz, PSOEk gobernatu Estatuaren aliatu zintzoa izateko nahia azaltzen zuen.

Azpimarratu, menia, solasaldi eta negoziazio egoeran izan arren, PSOEk ez zuela inoiz lasaitzeko politikarik garatu gisa horretako prozesua bideratzeko eta errazteko. Geroxeago, blokeo politikoak ekarri zuen etendura. Etendurak ondorioak ekarri zizkion norgehiagokari eta euskal egoera politikoari.

Etendurak irtenbideen gose eta negoziazio eta akordio politikekin zorrotza den euskal gizarteari ezusteko handia eragin zion. Egun, bi ziklo politikoen arteko igarobidean, bizi ditugun azpi-aldiak norgehiagoka, samina eta eskubide-urratze egoera berriak zabaltzen ditu.

Bi edo hiru urte hauetan egin den negoziazio politikoa eten bada ere, argitasunez zehaztu ditu egoera demokratiko eta irtenbide politiko osoen oinarriak eta honen ezaugarriak (Loiola). Nazioarteko parte-hartzeak, egin den neurrian, kokatuko ditu etorkizunean zabal litekeen prozesua berreraikitze gakoak. Oso litekeena da etorkizunean dena bestelakoa izatea, baina argi dago, badela, goiz ala beranduego, ekin beharko zaion oinarritzko plana.

Negoizazio prozesuan PNV estatuaren aliatu zintzo gisa aurkeztu da, prozesuari galga eginez. Imaz edota orain, Urkullu proposatzen ari diren "transbertsalitatea" estatutuaren erreforma hutsen kokatzen da; euskal burujabetzaren subjektua ukatuz eta PSOERI erakundeetako egonkortasuna eskainiz, PNV-ren aparatu faktikoan dauden ekonomia interesak hobekiago kudeatzeko.

Negoizazioak eten ondoren, PNV-k espero zuen Ezker Abertzalean izan zitekeen bilakaera 2000-2001ean gertatutakoaren oso antzekoa izango zela eta protagonisten "aldaketa" proposatu zuten. Horrela ulertu behar dugu, Imaz, egoerak agindua, joan izana eta Ibarretxe agertu izana. Ezker Abertzalearen aurka PSOE-k erabili errepresio basatiak egoera horri eragin nahi izan dio ere. Baina azken hauteskunde orokorren emaitzek, abstentzioaren bidez, ezker abertzalearen esparru sozio-politikoak erresistentzia handia azaldu duela erakutsi dute. Aldiz, PNV-ri ezbeharrak ekarri diote. Alderdi horrek Ibarretxerekin jokatu du sektore abertzaleekin lotu nahian. Porrotak joera taktiko-estrategikoa bizkortu du, Lizarra ondoko garaia itxiztat utzi du eta Arriagako espirituaren eraberritzea ekarri du PSOE-rekin akordio eta itun zikloari ekiteko.

Azken lau urtean NaBai-ren sorrera eta honen bilakaera zertan den ikusi dugu. Berezko ezaugarriak izanagatik, politikako eta hauteskunde-fenomeno den NaBai-k, 2001. urtean, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian Mayor Orejaren aurka proposatu zen UPN-ren aurkako oso antzeko eskema batekin, erakundeetan aldaketa egiteko indarrak pilatu ditu, baina negoziazio prozesuaren markoan benetako aldaketa politikoaren aldeko indarrak geldiarazi ditu. Historiako abagune honetan, aitzinean UNAI-rekin (Unión Navarra de Izquierdas) suertatu bezala, epe motzeko politikak nagusitzen ari dira norgehiagoka politiko orokorraren kaltean.

Kudeaketa txostena

22 y 23 de mayo de 2008. Barakaldo

Bestalde, azpimarratu ezker abertzaleak Ipar Euskal Herrian izan bilakaera: hauteskudetako emaitzetan zein aldarrikapen taktikoen erreferentzian. E.H.Bai kantonamendu eta udal hauteskundeetan erdietsi %15a, hirugarren hautes-indar gisa kokatuz, egin eskaintzari eman zaion bultzada nabarmena izan da. Honekin batera, eztabaida politikoak Lapurdiren, Nafarroa Beherearen eta Zuberoaren onepenean eta politikoki hauen ezagutzan sakondu du.

Azkenik, azken aldi honetan, burujabetza eta independentziaren aldeko esparruak ez du indarririk piltzen, eta oro har, defentsarako joera hartu du. Politikagintzan, sindikalgintzan nahiz gizartegintzan, independentziaren aldeko mugimenduak, ezker abertzalearen gaitasunak eta egintza ildoak eraginda, bere horretan dirau, geldirik, nahiz eta datozen urteetan honen potentzialtasunak bideratu behar diren. Sindikalgintza abertzalearen esku hartzeaz egin dezakegun balantzea, LABek egin ahaleginak ahalegin, lau urte hauetan egin gogoeta horren isla da.

1.3. Ekonomia eta gizarte eredia

Ekonomia eta gizarte aldagarriei Paris, Madril, Iruñea eta Gasteizeko administrazioen politika neoliberelek eragin diete. Etengabeko ekonomia hazkunde zikloak ez du ekarri aberastasuna banatzeko politikarik (kalitateko enpleguak, soldatak eta gizarte-estaldurak).

Administrazioek gainera, aurrekontu politikak murriztaileak erabili ditu gizarte arloan, zerga-politike-tan, laneko kargak atzeragarriak eginez, eta enpresariei eta kapital erretei zerga gutxiagoa ezarritz (sozietateen gaineko zerga), eta babesean eta gizarte zerbitzutan pribatizatze neurriak hartuz (sanitate publikoa, hezkuntza). Hauek, oro har, langile gehienek eskubide eta erretei egin diete kalte. Politika hauek, Ipar Euskal Herriari dagokionez, eta Sarkozyren eskutik, asko garatu dira.

Ekonomiaren sektore publikoari garrantzia kenduz, baliabide ekonomiko gehiago merkatuan eta batez ere, izaera orokorreko (sanitate publikoa, hezkuntza,...) gizarte-estalduretan jartzeko etengabeko joera neoliberal sakontzen joan da, Euskal Herrian, mugimendu sindikalari eta ezker politiko eta sozialari loturiko kontrabotere maila batekin. Ageriko da, Euskal Herrian, nazio-eskubideen aldeko borrokaren zentraltasunak eragiten diola ere aldarrikapen eta gizarte-borroken oihartzunari; PNV eta ekonomiaren sektore batzuk gai honetaz baliatzen dira bere enpresarien neurrirako herri eredia garatzeko.

Sanz eta Ibarretxeren gobernuen egintza batasun eragilea, CEN eta Confebask patronalekin elkar hartuz, azken lau urteetako beste ezaugarrietako bat izan da. Bi gobernuak hiztarte berezia eskaini diete enpresariei, zerga alorrean edota industria politikan "ad hoc" neurriak hartu dituzte, eta batik bat, sindikatuko eta gizarte jarreretan etengabeko estaldura ideologiko eskaini diete. Hots, sindikalgintzari aurre egin izanak eta patronalari eskaini babesak neutraltasun eskemetatik, lotsa azaldu gabe, alden-tzen ari den administrazioa busti dute. PNV-EA-IU osatu hirukoak patronal publiko gisa parte hartuz, sindikalgintza abertzalearen aurka ia esparru guztietan erabili du (Osakidetza, administrazioa oro har, irakaskuntza,...).

Bestalde, autonomia-estatutuaren esparrua agortu izanak eta Gasteizeko Administrazioak Lan Harremanetarako eta Babes Sozialeko Euskal Esparrua sustatzeko gogo ezak, Arabari, Gipuzkoari eta Bizkaiari dagokienez, erakunde mailan eta/edota gizarte eztabaidarako parte hartze esparrue-tan krisialdia areagotu du. Jarrera honen erreferentzia enblematikoa, besteak beste, Hobetuzena izan da. Egoera hau, kritikak eta salaketez gain, sindikatu abertzaleek osatu gehiengoak ez dio egokiro erantzun.

Gogoeta honetan, berriro ere, estatu mailako sindikalgintzaren jarrera kokatzen da: bi administrazio edo errealtate juridikoetan CCOO eta UGT-k ordezkatuak. Nafarroan, sindikalgintza abertzaleak baz-

tertzeko estrategiari eusten diote CEN patronalaren eta UPN-ren gobernuen lankidetzan edota elkar hartuz. Sindikatu hauek lau urte hauetan aldaketa politiko eta sozialaren etsairik handienak izan dira Nafarroan; etengabeko estaldura eman diote UPN-ri eta patronalari. Gasteizeko administrazioari dagokionez, CCOO-k eta UGT-k Administrazioak Lan Harremanetarako eta Babes Sozialeko Euskal Esparruak edozein bilakaera izatearen aurkako jarrera izan dute. Eskatu dituzten "gizarte eztabaidarako guneak Espainiako esparruaren alderdi subsidiario eta menpeko gisa nahi dituzte.

Mendekotasun eta sorospidetasun egiturako egoera honek iraun du. Honek utzi du lan eta pentsio-erreformek eragin diezaieten lan merkatuko lan eta gizarte prekarietate maileri; milaka gazte, emakume eta pentsiodunen ezegonkortasuna eta kezka areagotu da. Talde hauei eragiten diete politika sozio-laborearen ondorioek. Erreforma hauei eman erantzun ahula sindikalgintza abertzale osoaren defentsarako jarreraren adierazgarri izan da.

Laneko ezbeharren eta langileen heriotzen egiturazko zergatiak dira: kontratazio eredutan kalitateko enplegu narriadura (segurtasun eza, aldizkakotasuna, ...) azpikontratatzeko kate-sistemak hedatu izana eta oro har, lan baldintzak. Lau urtean Euskal Herrian suertatu 482 hildakoak patronalak eta administrazioek herio-kate honetan duten izugarrizko ardura sozialaren isla dira.

Egiturako egoera honek erraztu du patronalaren ofentsiba lan harremanetan. Negoziazio kolektiboko edukietan eta estrategian planteamendu bateragarririk ez duen mugimendu sindikal batekin, patronalak lau urteko aroa bete du, non bere interesak eta politikak kudeatu dituen erantzun handirik jaso gabe. Negoziazio kolektiboan hitzarmenen indarraldia, prekarietatea, lanaldia, soldata-politika baztertzaileak, bezalako aldagarrien bilakaerak adierazten digute, oro har, klase-norgehiagokan sindikal-gintzak atzera egin duela.

Biltzar nagusien bitarteko aldiaz egin atzera-begirako honetan, eragin handia izan du aipatu sindikatuaren arteko banaketak edota egintza batasun ezak. Negoziazio kolektiboan ELAk egin estrategia, sektoreko esparruan beren sindikatu jarrera alde bakar batez kudeatuz, ekintza sindikalean eta negoziazio kolektiboan izan ditzakegun ardurez gain, etengabeko eztabaida eragilea izan da. Egoera hau nahitaez gaingitu behar da langileon jarrera sendotzeko lantokietako lan harremanetan.

2. Esku hartzearen balantzea

Eredu politiko eta sozialari dagokienez, estatuen estrategiei eman erantzunak, politika eta gizartea aldatzeko estrategian indar politikoak, sindikalak eta sozialak bideratzeko gogoarekin batera, markatu du LABen azken lau urteko ekimena. Aldi honetan, sindikatuak errotzen dirau langileen artean, Euskal Herri osoan afiliatuak eta ordezkariak handituz.

2.1. Nazioarteko estrategia

Nazioarte mailan 6 Biltzar Nagusian ezarri oinarriko xedeak bete ditugu eta zuzen kudeatu ditugu. 2005eko abenduan La Habanan egin Munduko Federazio Sindikalaren 15. biltzarrean lortu genuen eskubide osoz Nazioarteko Sindikatuen Federazio honen bazkide izatea. Urtetan Moskun, Damaskon eta Delhi Berriko biltzar nagusietan begirale gisa parte hartu ostean, Euskal Herriko klaseko sindikalgintzaren erreferentzia onetsi izanak gure sindikatu-proiektua eta borroka legitimatzea eta aintzat har dadin lortu genuen.

Gertaera esanguratsu honen ondorioz, LABen parte-hartzea, Munduko Federazio Sindikalaren jardueri eta konpromisoari dagokienez, nabarmenki sendotu da; EUROFFeko Idazkaritzako partaidea izanik (Europar, Munduko Federazio Sindikalaren jardueri bultzada berria ematen ari zaien une batean) eta gure Biltzar Nagusiaren atarian, Donostian egingo den Metalurgia eta Meatzaritzako Nazioarteko Sindikatuen Batasuna antolatuko du. Biltzar Nagusi hau nazioarteko sindikalgintza eszenategian geure burua aurkezteko aukera bikaina izango da.

Nazioarte mailan, hau gure strategiaren giltzarri izanik, gure sindikatua ahalegindu da Estatu gabeko nazioen sindikalgintzari koordinazio egonkorra ematen, arazoak partekatu nahi izan ditugu, eta batez ere, herri eta klase gisa dagozkigun eskubide nazionalak eta demokratikoak nazioarteko agendan kokatzen saiatu gara.

Globalizazio neoliberalaren aurkako nazioarteko foroetan izateak bestelako mundu baten alde lan egingo dugun sindikatuak eta gizarte erakundeak LABen konpromisoa markatu du. Mugimendu honen krisialdia ez da oztopo izan sindikatuak iraun dezan politika neoliberalari erantzuten eta jarduerak koordinatzen (sektore nahiz konfederazio mailan -Konstituzio Itunari ez, Bolkestein zuzentarauari erantzuna, Lisboako proposamenak salatu,...-).

Aipamen berezia, borroka izan duen eraginagatik, IDC-n (International Dockworkers Council -Zamaketarien Nazioarteko Batzordea) izana eta honetan izan dugun parte-hartzea. Gure afiliazioa aho batez onartu zen 2005eko martxoan, Bartzelonan egin Batzar Orokorrean. Oroitu, Europako portuetan egin borrokaren ondorioz Europako Batasunak proposatu zuen zuzentarau liberalizatzailea, oraingoan, geraraz didin lortu duela.

Ildo berean, azpimarratu, sektore mailan nazioarteko harremanen garapena: Biltzarretan parte hartuz eta koordinazioetan edota bitariko trukaketan sakonduz (horratx, metalgintzaren, merkataritzaren, osasungintzaren, irakaskuntzaren, kimikak-en,... adibideak).

2.2.- LAB eta aldaketa prozesuan Euskal Herrian

LABen parte-hartze politikoa bi ardatz nagusitan oinarritu da. Alde batetik, sindikatua gizarte eragile aktiboa eta protagonista izan da Estatuak erabili errepresio strategiari erantzuteko orduan. Eskubide zibil eta politikoen urraketa, legez kanporatze, epaiketa politiko berriekin..., sindikatuak beti erantzun die enpresa eta gizarte mailan.

Bilkurak, manifestazioak, salaketa eta lanuzte partzialak edota erabatekoak egin ditugu aipatu politika eta neurriak salatzeke; alternatiba gisa, Euskal Herriaren burujabetzari begirunea eskatu dugu. Gehienetan ekimen hauek ez dute beste sindikatuen laguntza jaso, baina hori ez da oztopo izan LABeko militanteok, gizon eta emakumeok, hartu konpromisoei koherentziaz eta errepresio egintza salatzeari eutsi diezaiegun.

Ildo horretan, sindikatuak nortasunez egin du lan sakabanaketari eta euskal preso politikoen aurkako kartzela politika gogortzeari (batik bat, "doctrina Parot" izenekoarekin) erantzuteko. Sakabanaketa hori hurbiltasunez bizi izan dugu 2006ko martxoan, Baruk eta Igorrek Sindikatuarekin zuten lotura militantea dela eta.

Ibaetako Foroaren esperientziak sindikatuen elkarren arteko lanaren adierazgarri izanagatik, berriro ere -lehen antzeko zerbait suertatu baitzen- abaguneak eragin die sindikatu batzuen jarrerari (nahiz eta presoen aurkako errepresioaren errealitateak iraun). LABek, edozein "egoera" dela ere, lan egin du eta lan egingo du presoen eskubideen aldeko mobilizazioan; helburua, gatazka politikoa gainditzearen ondorioz, kartzelatik ateratzea eta amnistia lortzea da.

Eta bestalde, LABek gizarte eragilea izanik, Herri honetako aldaketa politikoa bultzatzeko zeregina piztu du. Aldaketa honek erabakitze prozesuan eta akordio politiko osoan izango du bere inflexio-puntua. Sindikatua, beste esparrutan egiten ari ziren elkarrizketa mailaren arabera, mugimendu sindikalaren berariazko protagonismoa bultzatu zuen: helburu horretan, UGT, CCOO eta ELAren harremanak zabalduz. Gure erreferentzia oso argia izan zen eta da oraindik ere: a) elkarrizketak, negoziazioak eta akordioak bakarrik eraman gaitzake irtenbide egonkor eta demokratikoak izango duen eszenategi batera. b) Euskal Herria izatearen onespina eta euskal gizarteak, lurralde guztietan, eman hitzari, inolako muga eta hipotekarik gabe, funtsezkoak izango dira, edukietan hornitutako, behin-betiko akordioa lotzeko.

Ekimen hura ondoren negoziazio prozesuaren etendura eragin zuten arrazoi berberengatik blokeatu zen. Berriro ere, norgehiagoka zabaleko eta ordurako porrot egin zuten bideak berriro hartu izanak ekarri egoera hartan, LABek azpimarratu nahi zuen bere konpromisoa eta jarrera akordio osoak egiteko, zeinak irtenbide politikoko egoera sortzen utziko zuen. Akordio osoen eta/edo zeharrekoen defentsa egitekotan, nazio onarpen printzipioen konbergentzian, proiektu politiko guztiak garatu ahal izana utziko duen euskal gizartearen hitzarekiko errespetuan egin behar da. Trabantasitatea ez daiteke euskal nazio eskubideen "gillotina" bihurtu, berriro PNV-k eskaini digun bezala.

Azkenik, sindikatuak erakundeetan edota sozio-ekonomia mailan, nazio egituratze ekimenetan lotu konpromisoei eutsi die eta garatu ditu, hauetan parte hartuz.

Honela ba, LABen erreferentzia aldaketa politikorako gizarte eragile aktibo gisa, nazio eskubideen defentsan eta nazio mailako proiektu estrategikoetan beste batzuekin parte hartuz, biltzar nagusien arteko aldi honetan finkatu da, eta kudeaketa txosten honetan aztertzen da. Autokritika gisa, esan, ekimen hauek planifikatzeko zailtasunak izan ditugula. Geurea sindikatua dela argi utziz, ekimenak hobekiago dimentsiona ditzakegu, eta batez ere, gure lanari eta esku hartzeari, gizarte mailan, eraginkortasun handiagoa bilatu behar diegu.

2.3. Ekonomiaren eta gizarte ereduarekiko kontraboterea

Gure 6. Biltzar Nagusian geure buruari jarri helburuak, hurrenez hurren, izan ziren: administrazio publikoek lotu politika eta neurrien aurrean, kontrabotere ekonomiko eta sozial giza dagokigun zeregina sendotzea, jarrera neoliberalak narriatuz, eta alternatiba ekonomiko eta sozialen bideragarritasuna indartzen dituzten sektorekoak eta orokorrak diren proposamenak garatzea.

Kudeaketa txostena

22 y 23 de mayo de 2008. Barakaldo

Balantzea hainbat alderditik azter dezakegu. Alde batetik, sindikatuak programa sozioekonomikoa zehaztu zuen, "liburu gorria", sektoreko aldarrikapenak osatzeko baliabide gisa. Nahi genuen bezala, alternatiba sozioekonomiko baten erreferentzia izan da.

Proposamen honen barneratzea eta honen kudeaketa, egituretan eta gizartean, aitzitik, eragin urrikoa izan da. Honen hedapena pizteko saiakerak egin dira eskualdeko jarduerak suspertuz -euskarri sintetikoa eginez-. Saiakera honetan eta maila guztietan ez da iraunkortasunik izan ez eta plangintzarik egin. Eskualde bakoitzak, beren ezaugarrien arabera, "bestelako Euskal Herria izan daiteke" xedean egin ekimenak, eskualdeko errealitate bakoitzetik abiatuz, egokia izaten diraute. Bultzada baten beharra du sindikatuaren jarduera sozioekonomikoak sendotzeko berezko plangintza.

Bestalde, balantze honetan, onuragarritzat jo Batzorde Sozioekonomikoak egin lana eta proposamenak: Idazkaritza Tekniko-ekonomikoak eta beste ardurak batzuk (hala nola, gizarte politika, enplegua, ingurumena eta azpiegiturak, sektoreko politikak,...) egin ekarpenak suspertu ditu.

Ekimen maila honek, kanpaina eta mobilizazio proposamenekin, aldiz, ez du barne mailako iragazkortze metodologiarik, eta are gutxiago, langile mugimenduan eta oro har, gizartean, ideologia eta borroka eta gizarte piztearen hedapena.

Sindikatuak hainbat gaiei ekin die, hala nola, industria-politikari, desleketzei, arrantzari, fiskalitatea eta Irungo iruzurrari, aurrekontu politikari, Kutxen bategiteari, azpiegiturei eta AHT-ri, ekonomia-egoerari buruzko txostenei,... gogoetak eta proposamenak aurkeztuz. Sindikatuaren diskurtsoa, administrazio publikoek lotu neurri edota erabakiekiko, aberastu da eta hedabideen bidez jakinarazi da, baina honen garapenak, "kalean", sindikatuaren erronka izaten dirau.

Honela ba, hedabideen eta erreferentziako kontraboterea egokiro egiten da baina mugak ditugu. Mugak ideologia-borroka eta lan dinamikak gauzatzeko baliabideetan, gizarte kontraboterea areagotzeko eta ekonomia eta gizarte politikak zalantzan jar ditzan eta baldintza ditzan. Desoreka hori etorkizunean aintzat hartu beharreko egiaztapena izan da. Honen bidez sindikatu eraginkorra izan dadin eta langileei eragiten dien ekonomia eta gizarte alorrean, gizarte mobilizatu ahal izan dezan nahi dugu.

2.4. Ekintza sindikala eta negoziazio kolektiboa

VI. Biltzar Nagusiak ekintza sindikalaren eta negoziazio kolektiboaren ereduak sakondu zuen. Berau astinaldia izan zen klaseko sindikalagintza erasokor eta koherentea egiteko eta lan harremanetan patronal pribatu eta publikoen estrategia baldintzatzeko xedean.

Helburu berean jar genitzake ere: antolakuntza aldaketak (eskualdeko eta sektoreko egituretan lotura handiago batez), sail sindikalak eta eskualdeko ardurak zituzten sektoreak gehiago dinamizatzea eta Ekintza Sindikaleko Batzordeak eta zuzendaritzako egiturek egin jarraipena. Hainbat inertzia konformista neutralizatu behar genituen eta borroka eta norgehiagokaren balioak sakondu behar genuen: lan baldintzak aurrerapenak eragiteko eta sindikalagintzan "berezko argiz" erreferenteak izan gintzen.

Balantzea egiteko garaian, Nazio Komiteak, oro har, irizten dio gure sindikatuko ereduari eta ekintza sindikaleko eta negoziazio kolektiboaren oinarritzko edukietan eragina izateko eta borrokatzeko gaitasunari sendotzeko norabide egokian gabiltzala. Aurrera egite hori egiazta badaiteke ere, patronalaren harrokeriari eta erasoei eta sindikatuen arteko lehiari eta zatiketari aurre egiteko irakurketa sakonagoa egin beharko genuke.

Lau urte hauetan, patronala pribatuak zein publikoak zorrotz dituzte beren jarrera atzerakoiak enpleguan, hitzarmenen indarraldian, soldata politketan, lanaldian,... Honela baldintzatu dituzte langileen

jarrerak, eta honen ondorioz, sindikatuena. Sindikatuaren parte hartzearen ezaugarri langileen erantzuna sustatzea eta borroka eta patronalaren jarrera aldaketa erraztea izan ohi da. Helburu horretan, ahal den gehien saiatu gara ere posibilismoaren edota etsipenaren maldan irristez ez egiten, eta edukiak "oker txikiak" har ditzagun, egiaztatzen denean hauek ez dietela erantzuten gure erreferentziei eta jarrerei. Gai honek kontraesanak eragin ditu sektore eta enpresa batzutan.

Zehaztearren, aipatu, sektorearteko esparruan "gizarte-erabatia" ez izanari (Confesbasken blokeoak eta CEN-k, CCOO-k eta UGT-k Nafarroan egiten duten bazterketak eraginda) ez zaio sektore eta enpresa esparruetan egin eskakizun nagusiei loturiko proposamenen bidez erantzun. Sindikatuak 35 ordutako lanastearen eta soldata-sozialaren alde egin dinamikaren ondoren (99ko Greba Orokorra eraman gintuena), mugimendu sindikalak ez du proposamenik edota aldarrikapenik egin sektorearteko mobilizazio-ardatz bilaka dadin. Azken hilabete hauetan enplegu proposamena lantzen ari gara. Proposamen horren bidez prekarietatearen aurkako borrokan neurri zehatzak lotzearen, erreferentzia orokorra izan nahi du, gai hori muina izanik, enpresetako lan eta botere harremanak zehazteko.

Sektoreko esparruan zailtasunak areagotu dira azken lau urtean ELAekin, patronalarekiko norgehiagokan negoziazio esparruak egituratu eta areagotuko duen estrategia sindikalean ditugun ezadostasunak direla-eta. Hala ere, LAB gogor saiatu da sektoreko esparrua sustatzeko eta aldarrikapenei eta borrokari eraginkortasunaz hornitzeko.

Lehen aipatu dugunez, lantokietan, erasoko eta borrokako sindikalizazioa gauzatzeko, gure eraginkortasuna eta sindikatuaren aitzindari izateko gaitasuna hobetzeko bide onean ari garela irizten diogu. Hamaika borroka interesgarri gertatu dira, emaitza onuragarri eta ereduagarriekin, nahiz eta lan harremanetan enpresariak erabili arrabolak eragiten duen klaseko norgehiagokan edota lantokietako botere harremanetan aldaketa orokorrez ezin dugun hitz egin.

Sindikalizazio osoan onuragarritzat jo behar dugu Ekintza Sindikaleko Batzordearen zeregina eta parte hartzea. Honen osaketa konfederalak eta sektorialak aukera eman du sindikalizazio kolektibo osoari jarraipena, analisia eta zehaztapena egiteko. Dena den, antolakuntzako baliabide honetatik, jarraipena eta ekarpena egiteko zeregina hobetzeko tarte dago.

Honela ba, balantze honi amaiera emateko, sindikalizazio oldarkorra egiten iraun behar dugu, eskakizunak ugariak eta langileei lotuak izan behar dituzte. Hori bati, gure sindikalizazioak, lan baldintzei eta enpresako botereari dagokionez, errealitatea "aldatzeko" printzipioan oinarritu behar du (nahiz eta batzuetan bakarrik suertatu) eta ez zaio errealitateari "egokitu" behar (hau baita erreformismoaren eta kudeaketa sindikalizazioaren ataria).

3. Proiektuaren hedapena eta antolakuntza garapena

Kudeaketa txostena

22 y 23 de mayo de 2008. Barakaldo

3.1. Proiektuaren hedapena

3.1.1. Nazio mailako sindikatua

Azken lau urtean sendotu da LABen nazio mailako garrantzia: proiektua hedatzen ari delako nahiz, Euskal Herri osoko parte hartze sindikala eta soziopolitikoan sakontzen ari delako.

Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan egiten ari garen lanak oinarriak eta/edota zainak errotu ditu. Honek uzten digu, egoera korapilatsu eta zail horretan, antolakuntzan eta eraginean aurre egiten. Hendaiaiko egoitza zabaldu izanak, Baionako egoitzarekin eta Ipar Euskal Herriko barnealdean dauden lan eta koordinazioa taldeekin batera, antolakuntza-garapena erakusten digute. Hau argitasunez nabaritzen da LABen zereginen (gizarte eta sindikatuko borroketan).

Ildo honetan, LAB gainditzen ari da Frantziako administrazioak nahiz estatu mailako sindikatuek gure erakundeari ezarri blokeoa eta deuseztatze prozesuak. Aurtengo abenduan "proud' hommes" hauteskundeetan sindikatua gai da duela sei urteko %9a gainditzeko eta oinarri soziala eta ordezkariak areagotzeko.

LABek nazio-mailan duen hedapenak ez du esan nahi nazio estrategia sendotu denik (analisian, eztabaian eta parte hartze ildoan). Gure herriak pairatzen duen zatiketa administratiboak gure lan egiteko erei eta antolatze dinamikiei eragiten die. Dena "Baskongadetara, mendebaldera" mugatzeko joera (demografia edota ordezkari loturiko gaiez gain) orekatu beharrak sindikatuan egokiro orekatu beharreko aldagarria izaten dirau.

3.1.2. Afiliazioa

Afiliazioaren bilakaera 2003-2007

Herrialdeak	2.003	2.004	2.005	2.006	2.007	Hazkundera 03-07	% 03-07
Araba	3.935	4.115	4.295	4.584	4.829	894	22,72
Bizkaia	12.957	13.478	14.147	15.155	15.935	2978	22,98
Gipuzkoa	12.333	12.626	13.275	13.932	14.434	2101	17,03
Iparralde	335	377	403	432	463	128	38,20
Nafarroa	4.913	5.413	5.692	6.157	6.472	1559	31,73
Guztira	34.473	36.009	37.812	40.260	42.133	7660	22,22

Lau urte hauetan afiliazioa %22,22an handitu da. Eta 2007ko abenduan 42.133 afiliatu izatera iritsi gara. Gehikuntza garbiak ekarri ditu 7660 afiliatu berriak aipatu aldian.

Emaitza hauek, zalantzarik gabe, onuragarritzat har ditzakegu. Gehikuntza nahiko homogoneoa izan da. Gipuzkoako %17tik Ipar Euskal Herriko %38ra. Nafarroako datuak oso nabarmenak izan dira, %31,7a handituz.

Afiliazio datuez, esan, afiliatuen %34,3a emakumeak direla eta %29,29-k ez duela 35 urte bete. Honek adierazten digu sindikatua gaztetzen ari dela; are gehiago, ikusten ari garenean, afiliatua pentsiodun

bilakatzen edota jubilatzen denean hauek "lotzen" kostatzen ari zaigunean. Gai honi ekiten ari zaio dagoeneko antolakuntza eta LAB pentsiodunen batzarreko parte hartze arloan.

3.1.3.- Sindikatuko ordezkariak

Ipar Euskal Herrian ez da hauteskunde berririk egin, duela sei urteko egoerari eutsiz. Hala ere, sindikatuak sail sindikal berriak sortu ditu ordezkariak eta eraginpean handitzeko: Champion, Ucin, Sokoa, Irakaskuntza, Seaska, Osasungintza,...

2002ko Bozkak

	CGT	CFDT	FO	CFTC	CGC	U.N.S.A.	LAB
Industria	1926	1864	954	257	191	191	521
Komertzioa	1810	1892	1181	474	194	310	489
Laborantza	47	257	107	13	11	41	50
Aktibitate anitza	1680	2540	1236	406	165	273	690
Koadroak	318	752	218	184	352	124	197
Orotara	5781	7305	3696	1334	913	939	1947
%	26,37	33,33	16,86	6,08	4,16	4,28	8,88

Hego Euskal Herriari dagokienez, 2006-07an hauteskunde sindikaletako aldi trinkoa egin da, eta honen emaitzak onuragarriak izan dira LABentzat. Jarri helburuak bete ditugu, ia erabat; enpresetan eta sektoretako ordezkariak areagotu dugu gure parte hartze sindikal eta sozioekonomikoaren ildoak garatze bidean.

- a) Hego Euskal Herrian %16a gaititu - %16,02
- b) Araba, Gipuzkoan eta Bizkaian %17a lortu - %17,14
- c) Bizkaian %13a gaititu - %13,10
- d) Nafarroan %12,50a lortu - %12,57
- e) Gipuzkoan %26,5era iritsi - %26,42
- f) Araban, maila "historikoak" gaititu, %11etik oso era arriskutsuan jaitsi ostean - %11,51

Egun, sindikatuak 4300 ordezkari baino gehiago ditu Hego Euskal Herrian.

Aldi trinkoan lortu emaitza honek, LABek aurre egin izanak adierazteaz gain, sindikatua hedatzeko alderdi honetan, tentsionamenduari eta plangintzari eutsiko bagenio, gehiago haziko ginatke; sindikatuak hazteko ahalmena duela adierazten digu. Gai honi buruz, antolakuntzako txostenean zuzentzeko neurriak proposatzen dira.

HAUTESKUNDE SINDIKALAK 2007 ARABA

		LAB	CCOO	ELA	UGT	ESK	USO	ESP.	N_S	OTR.	TOTAL
ABENDUA	Delegatuak	363	673	1.122	758	68	101	0	124	130	3.339
2003-12-31	% Herrialde	%10,87	%20,16	%33,60	%22,70	%2,04	%3,02	%0,00	%3,71	%3,89	%100
ABENDUA	Delegatuak	418	765	1.205	793	70	98	0	104	179	3.632
2007-12-31	% Herrialde	%11,51	%21,06	%33,18	%21,83	%1,93	%2,70	%0,00	%2,86	%4,93	%100
	% Aldea	%0,64	%0,91	-%0,43	-%0,87	-%0,11	-%0,33	%0,00	-%0,85	%1,04	
	Del. Aldea	55	92	83	35	2	3	0	20	49	293
	% Aldea	%15,15	%13,67	%7,40	%4,62	%2,94	-%2,97	#ZATI/O!	-%16,13	%37,69	%8,78

HAUTESKUNDE SINDIKALAK 2007 BIZKAIA

		LAB	CCOO	ELA	UGT	ESK	USO	ESP.	N_S	OTR.	TOTAL
ABENDUA	Delegatuak	1.134	1.948	3.826	1.378	138	196	0	240	392	9.252
2003-12-31	% Herrialde	%12,26	%21,05	%41,35	%14,89	%1,49	%2,12	%0,00	%2,59	%4,24	%100
ABENDUA	Delegatuak	1.331	2.317	4.060	1.426	148	213	0	266	402	10.163
2007-12-31	% Herrialde	%13,10	%22,80	%39,95	%14,03	%1,46	%2,10	%0,00	%2,62	%3,96	%100
	% Aldea	%0,84	%1,74	-%1,40	-%0,86	-%0,04	-%0,02	%0,00	%0,02	-%0,28	
	Del. Aldea	197	369	234	48	10	17	0	26	10	911
	% Aldea	%17,37	%18,94	%6,12	%3,48	%7,25	%8,67	#ZATI/O!	%10,83	%2,55	%9,85

HAUTESKUNDE SINDIKALAK 2007 GIPUZKOA

		LAB	CCOO	ELA	UGT	ESK	USO	ESP.	N_S	OTR.	TOTAL
ABENDUA	Delegatuak	1.624	1.030	2.808	500	85	28	2	176	73	6.326
2003-12-31	% Herrialde	%25,67	%16,28	%44,39	%7,90	%1,34	%0,44	%0,03	%2,78	%1,15	%100
ABENDUA	Delegatuak	1.754	1.014	2.951	470	90	24	0	156	180	6.639
2007-12-31	% Herrialde	%26,42	%15,27	%44,45	%7,08	%1,36	%0,36	%0,00	%2,35	%2,71	%100
	% Aldea	%0,75	-%1,01	%0,06	-%0,82	%0,01	-%0,08	-%0,03	-%0,43	%1,56	
	Del. Aldea	130	16	143	30	5	4	2	20	107	313
	% Aldea	%8,00	-%1,55	%5,09	-%6,00	%5,88	-%14,29	%100,00	-%11,36	%146,58	%4,95

**HAUTESKUNDE INDIKALAK 2007
BASKONGADAK**

		LAB	CCOO	ELA	UGT	ESK	USO	ESP.	N_S	OTR.	TOTAL
ABENDUA	Delegatuak	3.121	3.651	7.756	2.636	291	325	2	540	595	18.917
2003-12-31	% Herialde	%16,50	%19,30	%41,00	%13,93	%1,54	%1,72	%0,01	%2,85	%3,15	%100
ABENDUA	Delegatuak	3.503	4.096	8.216	2.689	308	335	0	526	761	20.434
2007-12-31	% Herialde	%17,14	%20,05	%40,21	%13,16	%1,51	%1,64	%0,00	%2,57	%3,72	%100
	% Aldea	%0,64	%0,74	-%0,79	-%0,78	-%0,03	-%0,08	-%0,01	-%0,28	%0,58	
	Del. Aldea	382	445	460	53	17	10	2	14	166	1517
	% Aldea	%12,24	%12,19	%5,93	%2,01	%5,84	%3,08	%100,00	-%2,59	%27,90	%8,02

**HAUTESKUNDE SINDIKALAK 2007
NAFARROA**

		LAB	CCOO	ELA	UGT	ESK	USO	ESP.	N_S	OTR.	TOTAL
ABENDUA	Delegatuak	711	1.474	1.279	1.928	102	31	0	171	395	6.091
2003-12-31	% Herialde	%11,67	%24,20	%21,00	%31,65	%1,67	%0,51	%0,00	%2,81	%6,48	%100
ABENDUA	Delegatuak	832	1.609	1.420	2.049	106	26	0	143	432	6.617
2007-12-31	% Herialde	%12,57	%24,32	%21,46	%30,97	%1,60	%0,39	%0,00	%2,16	%6,53	%100
	% Aldea	%0,90	%0,12	%0,46	-%0,69	-%0,07	-%0,12	%0,00	-%0,65	%0,04	
	Del. Aldea	121	135	141	121	4	5	0	28	37	526
	% Aldea	%17,02	%9,16	%11,02	%6,28	%3,92	-%16,13	#ZATI/0!	-%16,37	%9,37	%8,64

**HAUTESKUNDE SINDIKALAK 2007
HEGO EUSKAL HERRIA**

		LAB	CCOO	ELA	UGT	ESK	USO	ESP.	N_S	OTR.	TOTAL
ABENDUA	Delegatuak	3.832	5.125	9.035	4.564	393	356	2	711	990	25.008
2003-12-31	% Herialde	%15,32	%20,49	%36,13	%18,25	%1,57	%1,42	%0,01	%2,84	%3,96	%100
ABENDUA	Delegatuak	4.335	5.705	9.636	4.738	414	361	0	669	1.193	27.051
2007-12-31	% Herialde	%16,03	%21,09	%35,62	%17,52	%1,53	%1,33	%0,00	%2,47	%4,41	%100
	% Aldea	%0,70	%0,60	-%0,51	-%0,74	-%0,04	-%0,09	-%0,01	-%0,37	%0,45	
	Del. Aldea	503	580	601	174	21	5	2	42	203	2043
	% Aldea	%13,13	%11,32	%6,65	%3,81	%5,34	%1,40	%100,00	-%5,91	%20,51	%8,17

3.2. Antolakuntza garapena

Lehenengo eta behin, sindikatuak bere azpiegiturak eta baliabideak indartzen dirau gure jarduera egin ahal izan dezagun. Egoitza berriak zabaldu ditugu Gasteizen, Hendaian, Lekeition eta Lekunberrin, eta Euskal Herrian ditugun egoitzetako zerbitzuak hobetu ditugu.

Giza-baliabideei dagokienez, sindikatua ahalegintzen ari da ekimen-eragileez eta arduradunez hornitzeko, ekonomia-baldintza mugatu batzuetan. Egun, sindikatuak liberatu ditu; antolakuntza garapenari eta ereduari dagokionez, egin dezakegunaren mugan gabilta. Honek esan nahi du ordezkarien militantzia alternatiba gisa bultzatu eta piztu behar dugula militantzia "profesionalizatu" eta orokorren arteko oreka egokia izan dadin.

VI. Biltzar Nagusian proposatu zen antolakuntza ereduaren garapenaz, laburbilduz, esan (antolakuntza txostenean zehaztasuna handiagoz ageri delako), balantzeak argi-itzalak dituela.

Zuzendaritzako egiturak, oro har, ongi aritu dira, belaunaldien arteko aldaketa garrantzitsua egin behar zen aldiari, VII. Biltzar Nagusi honetan proposatzen diren aldaketei ekiteko. Exekutiboaren eta Nazio Komitearen lan-metodologia hobetzeko tarteez begi-bistakoa izaten dira. Kezkatzen gaitu ere, Nazio Biltzarretan bertaratze-maila. Hala ere, aipatu Nazio Biltzarra Biltzar Nagusien arteko organo goren gisa jardun da eta honen aldizkakotasuna eta ezaugarriak onuragarritzat jotzen ditugu.

Eskualdeko egiturak, azken nazio biltzarraren helburu nagusia, beren eztabaida-dinamika eta barne zein kanpoko jardunak indartu ditu. Dena den, oraindik orain, osaketan, arduetan eta jarduera-kudeaketan desoreka eta behin-behinekotasun handiak nabaritzen dira. Sektoreko arduradunen eta eskualdeko sektoreko arduradunen arteko lotura onuragarria izan da, dena den, ez da ekarpen, ardurak hartze eta batik bat, Eskualdeko Idazkaritza benetako eskualdeko exekutibo (politika, sozio-ekonomia, sindikalitate eta antolakuntza arloan) bihurtze emari gisa gauzatu. Herri biltzarrak sustatzeari dagokionez, gizartera horizontalki iristen lagako digun eskualdeko egituraren alderdi gisa, balantzea ez da onuragarria; egiazko egitura finkatzeko, nazio eta eskualde mailako berariazko lan egitasmoa behar dugu.

Berritasun on gisa, aipatu, Eskualdeko Kontseiluak abiarazi izana. Eskualde mailan gogoeta egiteko, koordinatzeko, ... potentzialtasun handia dutela uste dugu.

Sektoreko egiturari dagokionez, mami ezberdineko gaiekin egiten dugu topo. Alde batetik, sektoreko nazio egiturak finkatu dira (politikagintza eta sindikalitate kudeatzeko gaitasunaz). Bestalde, sektorea ekintza sindikaleko baliabide huts bilakatzeko joerak, bere jarduera nolabait despolitizatuz eta eskualdeko zuzendaritza egiturekin "lotu" barik, errealitatea izaten dirau. Joera orekatzea lanak ematen ari zaigu sektorea izan behar duen egitura osoko kontzeptura iristeko.

Eskualdeko sektoreko arduradunak oso garrantzitsuak izan dira ordezkariengana hurbiltzeko ekintza sindikala, eta batik bat, sail sindikaletan dinamismoa sustatu ahal izateko. Urrats hau egin ondoren, hamaikatzu urrats ditugu egiteko baina beti helburu argi batekin: sail sindikalak sustatu sindikatuko eta sozio-politikako dimentsio oso batean eta sindikatuaren jarduera guztietan koherentzia eta lotura handiagoa bidea eman.

Aparatu edo berariazko arloei dagokienez, laburbilduz, esan:

- a) **Komunikazioa** - Iraultzen eta Web orria sendotu; diseinu-propaganda lana, oro har, positiboa eta eraginkorra; prentsan aurrerapenak, baina antolatze eta plangintza egiteko arazoak.
- b) **Prestakuntza** - Ipar Hegoa.- Sindikatuak asko ekoizten du oinarritzko prestakuntzari eta gai monografikoei dagokienez, baina ez du metodologia egokirik koadroen eta oro har, militanteen prestakuntzari benetako eraginkortasuna emateko. Ipar Hegoak, agertu zereginak eta erronkak betez, bere kanpo proiektzioa eta Sindikatuaren prestakuntzarekiko lotura areagotu behar du.

c) **Lan Osasuna** - Sindikatuan, sindikatuko ekintza egiteko garaian, erreferentzia handia hartu dute osasuna eta lan ezbeharrak. Prestakuntza eta aholkularitza,... egokiro lotu zaizkio mobilizazio eta salaketa bultzatzeari. Balantzea onuragarria da baina maila guztietan gehiago zehaztu eta sustatu behar da.

d) **Ingurumena** - Sindikatuak gogoeta egiteko gaitasuna areagotu du, areagotu du ere, ingurumenari eta Euskal Herriko lurralde-egituraketari dagokien guztian, kanpo mailan, eragiteko ahalmena. Energia nuklearrari, egurats aldaketari eta energia ereduari,... egin ekarpenak eta honi buruz egin jardunaldiak... AHT-ren aurka eta gizartearen zerbitzura legokeen tren-ereduaren alde izan dugun parte-hartzeak eta AHT-ren aurkako borrokari eman laguntzak balantze onuragarria dakarkigute. Aipatu balantzea eraginkortasun handiagoaz "sartu" behar dugu gure parte-hartze sozioekonomikoan -eskualdetan zein sektoretan-.

e) **Pentsionistak** - Biltzar Nagusi honi ekinen diogu pentsionisten batzarra egin eta eratu berri ondoren. Hau antolakuntza eta gizarte lan ildoak finkatzeko aurretiko urratsa izan da. Norabide egokian gabilta LABen garapenean urrats nabarmenak egiteko, langile guztiei zuzendu sindikatuko proiektu gisa.

f) **Gazteak** - Aurreko Biltzar Nagusian proposatu zen trantsizio aldia ez dugu gauzatu lau urte hauetan. Orduan proposatu aliantza estrategikoak ez du bilakaerarik izan eta elkarrizketa, harremana eta lankidetzaguneak gazte erakundeekin gelditze nabarmena jasan dute. Aldi honetan jasan antolamendu arazoek ez dezakete ezkuta sindikatuaren zuzendaritzak egin beharreko autokritika orokorra.

g) **Kooperatibak** - Sindikatua antolamendu ereduaz eta esku hartze ildoaz hornitzeko egiten ari den ahalegina handia den arren, orain arte behintzat, jaso emaitzak ez dira onuragarriak izan. Positibotzat jo dezakegu Eroskin sindikatuak izan duen finkatzea.

h) **Etorkinak** - Gai honi dagokionez, balantzea negatiboa izan da genituen helburuak genituela. Alor honetan nahiz eta afiliatuak eta lan taldeak izan, eta hortaz, berariazko arazoak dituen eta euskal demografian areagotzen ari den talde batean (200.000), eskualde eta sektoreko egiturei zabal liezaiekeen lana ez gara finkatzen ari.

i) **Gaituak** - Gogoeta eta berariazko sakontze maila lortu dugu; honetan sindikatua, zalantzarik gabe, aitzindaria izan da. Afiliatu eta ordezkari hauek dagokion eskualde eta sektoreko egituretan sartu izana berariazko gogoeta eta aldarrikapen proposamenekin osatu dugu, zeinak Lan Jardunaldi onuragarri batzuetan aurkeztu genituen. Orain dagokigu hauei jarraipena egitea eta LABen jarduera sindikalean integratzea.

3.3. Egitasmo estrategikoak

Egitasmo estrategikoei dagokienaz -Aukera berdintasuna eta EUSLAB-, azken lau urtean izan garapena onuragarritzat jo dezakegu, besterik gabe.

Aukera berdintasun planak garatzen dirau erakunde barruan eta lantokietan eta gizartearen egiten dugun ekintza sindikala bustitzen ari da. Emakundek sindikatua jendartean aintzat hartu izana biltzar nagusien arteko aldi honen balantzean ageri da. Dena den, lehen egitasmo honen ondoren, gure ustez, sindikatua iritsi da Biltzar Nagusi honetara indarberritzeko premia, berriro ekin diezaiogun.

Antzeko zerbait gertatzen ari da EUSLAB-kin (LANEUS eta SINEUS alorretan). Euskararen Normalkuntzako Itunak enpresetan, sindikatuen presioaren ondorioz eta marketing politikoa egitearen beharrez, sindikatuak hartu jarreraren premia du (konpromisorik eta benetako eraginkortasunik ez dituzten propaganda espekulazioak eragotziko lituzkeena).

Kudeaketa txostena

22 y 23 de mayo de 2008. Barakaldo

4. Balorazio orokorra

Sindikatu zuzendaritzak aurkeztu kudeaketa txostenari argia eta orekatua irizten diogu. Alderdi onuragarriak bere neurrian balioesten dira eta kritikak neurrian eginak dira. Gure aburuz, ongi egin dena esatea nahiz sindikatu gisa dugun proiektua garatzeko zuzendu edota aldatu behar dena aitortzea bezain garrantzitsua da.

Biziraupeneko, enpresako eskema duen proiektua kudeatzeko ikuskeren aurrean, LABeko gizon eta emakumeok, Euskal Herria Independentzia eta Sozialismorantz egiten ari den bidean, aldaketa politiko eta sozialaren zerbitzura militatzen ari gara. Norabide eta zehaztapen horretan antolakuntzako baliabideak gara. Hortaz, gure erreferentzia nagusia erakundeari gizartean eta sindikalgintzan eraginkorasuna ematean datza: ezarri helburu estrategikoak lortzearen, gizarteko eta politikako indar harremanak alda daitezten.

Gainontzean, VII. Biltzar Nagusi honi erakunde finkatu batez ekinen diogu. Finkatua bere jarreretan eta ezaugarri estrategikoetan, kokatze politikoan eta sindikatuko ereduari; erakunde finkatua azpiegiturretan eta hedatzeko eta garatzeko baliabideetan; gurea, nortasuna duen eta euskal sindikalgintzan itzala duen erakundea da. Hitz batez, gure sindikatuko proiektua gora egiten ari den proiektua da eta etorkizunean gaitasun handia izango du.

Hori bai, VII. Biltzar Nagusia egin ostean, ahalegin berezia egin beharko dugu gure sindikatuko eredu hobetzen, patronalarekin mintzatzeko gaitasuna eta indarra irabazten, langile gazte eta emakumeak, batik bat, pairatzen ari diren berariazko arazoaren aurrean, bere gaitasunengatik nabarmentzen den erreferentzia izaten, eta jakina, LAB aldaketa politiko eta sozialerako gizarte-eragilea izanik, eta Independentzia eta langile gehiengoaren zerbitzura egongo den euskal sozialismoa lortzearen, ahalegin berezia egingo dugu honi protagonismo handiagoa ematen. Horrexek izan behar du Biltzar Nagusi honetatik sortu behar den zeregina.

Euskal Herria, 2008ko apirila
Nazio Komitea